

BALIO PROPOSAMENA

Gure produktuak eskola, unibertsitate eta enpresa bezalako erakundeetan hainbat behar edo arazo konponduko ditu, hala nola, arbelaren erabilera erosoago, praktikoago, osasuntsuago eta higienikoago bat. Hori kontuan izanda, gure produktuak erakunde hauetako esparru anitzetan onurak ekarriko ditu.

Alde batetik, arbelaren garbiketa automatikoari esker, erakundeetan lan egiten duten garbitzaileen lana murrizten eta errazten du eta, hortaz, hauek beste lanak hobeto osatzera eramaten ditu.

Bestetik, arbelaren klariona edo errotukien ondorioz langile eta ikasleek izan ditzaketen osasun arazoak murrizten ditu. Izan ere, klarionen hautsa edota errotukien soberakinak alergia probokatu ahal dizkie pertsonei. Kasu honetan, soberakin hauek gure gorputzak patogeno kaltegarriak balira bezala hartzen ditu eta sistema immunologikoaren gehiegizko erreakzioa sortzen da, hain zuzen ere, horrela funtzionatzen dute alergia. Horregatik, klariona edota markagailuen hautsa arnastean, alergia eragin dezake, txistu-arnasa, arnas infekzioak, SFRSak edota afonia sortuz kutsatutako pertsonetan. Gainera, ikertu da klarionen erabileragatik eskola-irakasleen artean arnasbideko gaixotasun batzuen (asma, ahots urratua,...)prebalentzia dagoela. Gure proiektuari esker, hauek murriztuko genituzke eta hortaz, langileen zein ikasleen osasuna eta alergia prebenitzea ziurtatu dezakegu.

Gainera, gure ezabagailuak klaseak eramangarriagoak egingo lituzke; izan ere, ez litzateke hainbeste denbora galduko arbeletan idatzita dagoena borraratzen, gure sistemak duen banaketari esker. Honi esker, irakasleak ez luke denborarik galduko arbelean dagoena borraratzen eta beste zerbait egin ahalko luke ezabagailuak martxan dagoen bitartean.

Horrez gain, gure garbitzailearen diseinuari dagokionez, arbelaren goiko aldean kokatzen denez, ez du espazio erabilgarrik okupatzen. Hori dela eta, ez du klaseko espazioa murrizten eta ez du inolako eragozpenik sortzen.

Era berean, arbela garbitzeaz aparte, proiektore lanak egiten ditu; izan ere, arbela garbitzeko jaisten den tolo zuria ordenagailuko pantaila proiektatzeko ere balio du.

Azkenik, martxan jartzeko oso gailu erraza dela azpimarratu behar da; izan ere, aplikazio baten bidez gailuaren funtzionamendu osoa modu eroso eta intuitiboan kontrolatu daiteke. Aplikazioaren bitartez, esaterako, gailua piztu eta itzali eta ordu zehatz baterako programatu daiteke.